



## Alberto Atxabal Rada

“Barne koherentziak bultzatu ninduen tesia euskaraz egitera”

**Alberto Atxabal Radak** Deustuko Unibertsitatean egin zituen Zuzenbide ikasketak, eta Aholkularitza fiskaleko Master bat egin zuen ondoren. Aipatutako unibertsitateko Finantza eta Tributu Zuzenbidea irakaslea da, eta doktorea 1999az geroztik.

Argitaratu dituen liburuen artean, honakoak ditugu: *Euskara, Zuzenbidearen hizkera* (1995 æ1997, bigarren argitaraldiaæ, Bilbo: Deustuko Unibertsitatea), *Practicum de Derecho Civil Foral del País Vasco* (1995, Bilbo: Deustuko Unibertsitatea), *Finantza zuzenbidea* (1999, Bilbo: Deustuko Unibertsitatea), eta *Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilaren Fiskalitatea/La Fiscalidad del Derecho Civil Foral del País Vasco* (1999, Foru Ogasunei buruzko Doktorego Tesien Bilduma 2, Bilbo: Ogasun eta Finantza Saila, Bizkaiko Foru Aldundia, Euskal Gaien Institutua, Deustuko Unibertsitatea).

### Ikerketa juridikoa

Zuzenbide ikasketak egin dituenak, aukera asko eta asko dauzka aurrean. Hona hemen horietako bat: ikerketa juridikoa. Jarduera honen bidez, Zuzenbidea bera zertan den eta zehazki zer eraentzen duen lantzeari ekiten dio ikertzaile juridikoak, ondoren konklusio batzuk atera eta kritikoki azter ditzan. Horrelako ikerketak, doktore tesien harian egiten dira ohiki. Eta, Euskal Herrian, badugu euskaraz egin duenik ere. Berarekin izan gara, batetik ikerketa juridikoaren berri eman diezagun, eta, bestetik, ikerketa hori euskaraz egin izanak daukan garrantzia.

# 1.

Zerk bultzatu zintuen doktore-tesia euskaraz egitera?

Arrazoi batzuk aintzat hartuta erabaki nuen tesia euskaraz egitea. Beraz, ezin daiteke esan

arrazoi bakarra izan denik, ezpada faktore desberdinak batu direla. Alde batetik, irakasle euskalduna izanik, eta irakasgai guztiak euskaraz irakasten ditudanez, barne koherentziak bultzatu ninduen tesia euskaraz egitera. Ene ustez, euskaldun guztiok ardura dugu euskararen normalizazioa aurrera eramateko eta, ondorioz, euskaldun bakoitzak ahalegin berezia egin beharko luke euskara zabaltzeko, berak

kitu zait. Modu horretara, doktore-tesia egiterakoan, aukera bi nituen: gaztelaniaz ala euskaraz egitea. Horietatik bigarrena aukeratu nuen.

Beste alde batetik, aintzat hartu behar da ere Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultatearen plangintza, irakasgaiak euskaraz emateko. Plangintza horrek hiru ardatz nagusi ditu. Lehenik, eskuliburu juridikoak euskaratu dira, ikasle euskaldunak euskarriren bat izan dezan bere ikasketetan. Bigarrenik, irakasle euskaldunak trebatu dira irakatsi behar duten Zuzenbidearen adarrean, kalitatezko irakaskuntza bultzatu nahi

delako. Hirugarrenik, arestian aipatu plangintzan, sormen lana eta ikerketa lana bultzatu nahi dira eta, horien artean, baita doktore-tesiak euskaraz egitea ere. Hortaz, plangintza horren barruan kokatu beharko litzateke nire tesia eta berori euskaraz egitea.

## 2.

Zein zailtasun aurkitu dituzu bidean?

Zailtasunak eta oztopoak denetarikoak izan dira hasieratik. Agian, tesia hasi baino lehen zailtasun horiek jakin izan banitu, ez nukeen tesia euskaraz egingo. Burutazio horiek gorabehera, nik uste baino oztopo gehiago izan ditut tesia euskaraz egiteko. Hasteko, zuzendari euskalduna aurkitu behar da, hau da, doktore euskalduna, eta zuk aukeratutako alorrean aditua dena. Hori ez da erraza, oraindik doktore euskaldun gutxi daudelako Zuzenbide Fakultatean.

Hurrenik, ikastaro batzuk hartu behar ditu doktoregaiak metodologia zientifikoan trebatzeko eta ikerketa nola egiten den ikasteko. Ikastaro gehienak gaztelaniaz dira, eta ez dago euskarazkorik.

Aurrekoaz gain, tesian erabilitako dokumentazioa eta bibliografia ez dago euskaraz idatzita. Liburuak, aldizkarietako artikulak, artxiboetako agiriak ez daude euskaraz; hortaz, itzultzaile bihurtu naiz, dokumentazio horren aipamen egokia egin ahal izateko. Bestela esanda, doktoregai orok ikerketa lanak burututa, tesia idazten du; euskarazko doktoregaiak, gainera, itzuli egin behar ditu aipamen horiek guztiak.

Hurrengo oztopoa, epaimahaia osatzea izan da. Doktore-tesiei buruzko Errege Dekretuak baldintza batzuk ezarri ditu epaimahaia osatzeko. Betekizun horien aiora, epaimahaiko kideek doktore izan behar dute; ohiturak, ordea, behartzen du irakasle titular edota katedradunak izatera mahaikide. Ildo bertsutik, doktoreek tesiaren gaian adituak izan behar dute, eta horietatik hiruk, gutxienez, beste unibertsitate batzuetatik etorri behar dute, departamentu berekoak mahaikide bi baino ezin direla izan. Irizpide horiek aplikatuta, nire kasuan, mahaikideetatik bi, gehien jota, izan zitezkeen Deustuko Unibertsitateko doktore euskaldunak (irakasle titular edo katedradunak izanez gero, hobe), tesiaren gaian adituak. Gainerako hirurek Euskal Herriko Unibertsitateetik etorri beharko lukete, munduko beste unibertsitateetan ezin daitekeelako aurkitu doktore euskaldunak. Era berean, hiruok ezin dute departamentu berekoak izan. Gainera, baldintza berberak bete dituzten bost mahaikide ordeko ere izendatu behar dira.

Argi ulertuko duzueenez, baldintza horiek bete ezinak dira, egungo egoera kontuan izanda. Hori guztia dela eta, tesia ezin izan dut euskaraz defenditu, ezpada gaztelaniaz.

Amaitzeko, tesia argitaratzerakoan, ez dago erraztasun handirik, tesiaren euskarazko argitalpena ez delako errentagarria. Argitaletxe pribatuek ez dute diru galerarik euren gain hartu nahi; beraz, herri administrazioek hartu beharko lukete ardura hori. Nik, egia esateko, zorte handia izan dut, Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailak interes berezia izan duelako tesiaren gaian eta nire tesia argitaratu duelako, ele bitan.

## 3.

Euskaraz idazteko bestelako zailtasunik izan al duzu?

Bai. Guztiok dakigu Zuzenbidearen eta hizkuntzaren arteko lotura zein estua den. Ondorioz, euskara bera normalizazio bidean den honetan, zailtasuna izan dut hizkera juridikoa euskaraz erabiltzeko, hizkera juridikoaren euskarri den euskara batua aldakorra delako.

Euskara ez da ofiziala izan azken hogeitau urteak arte –gerra aurreko bederatzitau hilabete haiek gorabehera–, eta, horrenbestez, euskara ez da Zuzenbidearen hizkuntza izan oraintsu arte. Horrek bi motatako zailtasunak ekarri ditu. Batetik, euskarazko terminologia juridikoa eratze bidean da eta, batzuetan, euskal termino bat baino gehiago erabiltzen dira kontzeptu bera adierazteko, doktoregaiaren lana zailduz. Nire tesia Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilaren Fiskalitateari buruz izanik, tributu legeak nahiz Foru Zuzenbide Zibileko legea euskaratuta daude, eta ez dut arazo gehiegirik izan terminologiarekin.

Bestetik, termino egokiak jakinda ere, nire kezka nagusia diskurtsoarena izan da; barbarako, diskurtso juridikoa euskaraz nolakoa den argitu behar izan dut. Hariari segiz, sarri askotan, euskarazko testuetan gaztelaniaren egiturak kopiatzen dira, hau da, gaztelaniazko diskurtso juridikoa eredutzat hartzen da nahi gabe. Euskarak, ordea, badu bere jariora, bere idazteko era, bere diskurtsoa. Nire ustez, diskurtso juridikoak euskal literatura eta sermoigintzatik ekarri behar du erueda. Ildo horretatik, azken urteotan, Deustuko Unibertsitatean, adar juridiko ezberdinetako eskuliburuak euskaratu dira, hala nola, Zuzenbide Zibila, Administrazio Zuzenbidea, Merkataritzako Zuzenbidea eta Finantza Zuzenbidea. Euskaratze lan horretan, euskal diskurtso juridikoaren eredu bat ezarri da, euskaratik bertatik ekarria, gaztelaniaren egituratik aldenduz. Eredu horren isla ekarri nahi izan dut, nik ere, tesiaren idazketara.

## 4.

Zein neurri hartu behar dira, zure ustez, etorkizunean Zuzenbideko doktore-tesiak euskaraz egin daitezen?

Erantzuna ez da erraza. Egungo egoerari begiratuta, ia ezinezkoa da tesia euskaraz aurrera eramatea eta defenditzea. Arian-arian, doktore euskaldun berriak sortuko dira eta izango da non aukeratu. Bien bitartean, unibertsitateetako agintariek erraztasunak eman beharko lituzkete irakasle euskaldun gazteek doktore-tesiak euskaraz egin ditzaten.

Horrekin batera, Errege Dekretua aldatu eta horren baldintzak malgutu beharko lirateke. Gaur egun, Zuzenbideko bi fakultatetan bakarrik daude doktore euskaldunak: Deustuko Unibertsitatekoan eta Euskal Herriko Unibertsitatekoan. Horren zioz, tesien defentsarako epaimahaiak osatu ahal izateko, unibertsitate horietan bilatu behar dira mahaikideak nahitaez. Dakigunez, bost mahaikidetik bi baino ezin dira izan departamentu berekoak, eta egun ez dago horrenbeste doktore euskaldun.

## 5.

Nola ikusten duzu euskarazko ikerketa juridikoa egun? Eta etorkizunera begira?

Ez da batere erraza ikerketa juridikoa euskaraz egitea, batik bat, ikertzailearen helburu nagusiak ikerketaren emaitzak plazaratzea izan behar duelako. Alde horretatik ikusita, ez da errentagarria euskarazko ikerketa liburuak argitaratzea, irakurle kopurua oso txikia delako. Hortaz, zeharo zaila da argitaletxeak aurkitzea. Ikerketa argitaratu ezean, ikertzaileak ez du motibaziorik, tartean ez bada administrazioen diru laguntzarik. Nire aburuz, euskarazko ikerketa juridikoa, egun, administrazioek eman ditzaketan diru laguntzen menpe dago erabat.

Aldizkari juridikoei dagokienez, ez dago aukera handirik ere. Euskarazko aldizkari juridiko bakarra **Eleria** da egun. Horrez gain, zenbait aldizkaritan (esaterako, Herri Arduralaritzaren Euskal Aldizkaria, Karmel, RIEV...) inoiz argitaratzen dira euskarazko artikulukoak.

Etorkizunera begira, baikor izateko arrazoiak ikusten ditut. Zuzenbide fakultateetan, ikasle euskaldunen kopurua ugartuz doa. Lizentziatu horiek dira ikerketa juridikoaren harrobia, bai eta ikerketa horren hartzailak ere.

Elkarrizketatzailea: Itziar Alkorta